

tado general primer adjunto, pues el de Diputado general fué conferido en las Juntas de Oñate de aquel año al ilustre patricio D. Francisco de Lersundi, más bien como distincion honorífica y testimonio de la gratitud del país por los brillantes discursos que en defensa de sus instituciones, rudamente combatidas por el Sr. Sanchez Silva, había pronunciado en el Senado.

Ejerció asimismo el finado Vizconde el cargo de Senador y reunía varias honrosas condecoraciones.

Las dotes de bondad y patriotismo que le adornaban han hecho que su muerte haya sido muy sentida por sus numerosos amigos, y á sus funerales, que se celebraron en Deva, asistió una gran concurrencia en la que se veían muchas distinguidas personas del país.

¡Dios le haya acogido en su seno, y conceda á su atribulada familia resignacion cristiana!

---

## GAL-AZIAREN PARABOLA.

---

Jesus-ek, bada, itzaldia onela asi zuen. Etorri da ordua, gizonaren Semea gloriastua edo alchatua izango dana; baña onekin gertatuko da gal-aziarekin gertatzen dana, Gal-azia erortzen danean; iltzen ezpada, bakarrik dago; baña iltzen bada, ugaritzen da. Gizonaren Semearekin au bera gertatuko da. Au esatearekin batean gogoratu zitazyon zetozkion iltura edo tormentuen eramanearra eta otsegin zuen: Nere burua estua dago, eta ¿zér esango det? ¿nori itzegingo diot? Zugana ¡Aita nerea! zugana nator nere esturasun guzien erdian. Gorde nazazu datorkidan ordu ikaragarri artatik: baña ez orrelakorik, Jainko nerea. Ni ez naiz etorri ilturai iges egiteko, ezpada Zuri eskeñtzeko. Artu zadazu, bada, Jauna, egingo dizudan ofrenda, eta zure Izen guziz Santua alcha-ezazu. Atzeneko itz oyek esan orduko, Zerutik irten zan ots bat, ziona: Alchatu det, eta alchatuko det. Ots au batzuek turmoi-soñutzat artu zuten; besteak Jaunaren Aingeruaren itz-otsa zala, zioten; baña Jesus-ek esan zien: Ots au ez nigatik, ezpada zuek-

gatik izan da, ezagutu dezazuten Jainkoaren Semea naizala. Mundua orain neurtu edo juzgatuko da; mundu onetako agintaria orain kanpora botako da, eta lurretik jasotzen nautenean guzia neretuko det. Itz oyekin aditzera eman nai izan zien, Ebanjelio Santuak dio, gurutzean ilko zala. Orduan Juduak esan zuten: Guk gure legean aditu izan degu, Kristok beti iraungo duela, eta Zuk ¿nola diozu gizonaren Semea gurutzean jasotzea konbeni dala? ¿Gizonaren Seme ori nor da? Oraindik ere zuen artean argi piska batek badirau, Jesus-ek esan zien, eta argi onek dirauen bitartean ibilli zaitezte, illunak itsumustuan artu etzaitzaten; illunpean dabillanak, ez daki, non dabillen; argia dezuten artean, argiagan sinistu ezazute, argiaren umeak izan zaitezten. Esaten bazien bezala, etzitzatela galdu ayen artean egingo zituen egun banakak, bada ura ill ezker sartuko zitzaizen illunak, etziela onik egiten utziko. Ala gertatu zan: Juduak orduko argiari etzioten lekuri eman nai izan, itsutu ziran, Egia ezagutzeko, eta gaur-dan-egunean ere itsutasun onek jende zorigaiztoko argan badirau. Itzaldi onen ondoren illuntzean Jesus bere Apostoluakin Elizatik irtenda, Betania-ra Lazaro eta bere bi arrebaen echera itzuli zan.

FRANZISKO IGNAZIO LARDIZABAL-KOAK.

